

KOSOVOKO EMAKUME TALDEAK ERRESISTENTZIA ZIBILEAN ETA BAKE ERAIKUNTZAN (1989-2014): LOTURA TEORIKOAK ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN ERAGINA

Tesiaren egilea: Itziar Mujika Chao

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Tesi-zuzendaria: Karlos Pérez de Armiño

Tesiaren laburpena:

Tesi honek bi helburu nagusi ditu: batetik, Kosovoko emakume taldeek guda aurreko erresistentzia zibilean (1989-1997), gudan (1998-1999) eta guda osteko bake-eraikuntzan (1999-2014) izan duten parte-hartzea eta horren nolakotasuna aztertzea, *Kosovo Women's Network* (KWN) emakume taldeen sarea kasu ikerketatzat hartuta; bestetik, nazioarteko lankidetzak emakume taldeen sare horren jardunean izan duen eragina zer nolakoa izan den ikustea. Horretarako, lehendabizi, ikerketa-lan honen eremu teorikoan, Nazioarteko Harremanen diziplinaren baitan nazioarteko segurtasun-ikasketak, gatazka armatuak zein indarkeriarik ezean oinarritutakoak, eta ondorengo bake-eraikuntza prozesuak aztertu ditut, Segurtasun Ikasketa Feministak ardatz hartuta. Ondoren, kasu-ikerketan, 1989 eta 2014 artean Kosovoko emakume taldeen jarduna, parte-hartzea eta agentzia sozial eta politikoa aztertu ditut, baita ibilbide horretan nazioarteko erakundeek eskainitako lankidetzak izandako eragina ere.

Ikerketa honek erresistentzia zibilaren eta bake-eraikuntzaren arteko lotura eta elkarguneetan sakontzea ahalbidetu du, ikuspuntu feminista batetik. Lan honen ondorio nagusietako bat izan da, hain zuzen ere, balizko loturarik ez zuten bi eremu horien arteko elkarguneak geroz eta nabarmenagoak eta sakonagoak direla, batez ere bake-eraikuntzaren testuinguruetan; eta, aldi berean, generoko botere-harremanek sakon ezaugarritutakoak direla lotura horiek, batez ere azken hamarkadetan nazioartean gailendutako bake liberalak ezaugarritutako gatazka osteko testuinguruetan.

Kosovoko kasuak ateratzen du hori agerira: guda aurreko erresistentzia zibil prozesuak, oro har, generoko botere-harremanak jarri zituen agerian, emakumeak zein haien aldarrikapenak alderatuz; gudak ere generoko inpaktu sakona izan zuen; eta, guda osteko bake-eraikuntzak emakumeen zein haien aldarrikapenen aurkako bazterkeria-prozesu berri bat ekarri du tokiko indar politikoen zein nazioarteko erakundeen aldetik. Dena den, KWN jardunean mantendu da tokiko emakumeen eskubideen defentsa ardatz hartuta, egun tokiko bake-eraikuntza prozesuan aktore bihurtu arte.

KWNren ibilbidea nazioarteko lankidetzaren nolakotasunak ezaugarritutakoa izan da. Guda ondorenean emakume talde horienganako nazioarteko lankidetzaren nabarmen hazi da, haien lanean zuzenean eraginez. Lankidetzaren horrek talde horien lana ahalbidetu du, baina bake liberalaren ezaugarriak ere transmititu ditu finantzaketarekin batera. Dena den, maila diskurtsiboan nazioarteko lankidetzaren eragina ia hutsala izan da, eta emakume taldeek bake liberalaren agendaren aurrean hainbat erresistentzia-dinamika jarri dituzte abian, beste behin tokiko emakumeen behar eta eskaerei erantzuna emateko.

Lan honek, beraz, erresistentzia zibilaren eta bake-eraikuntzaren arteko loturen genero-ikuspuntua bakarrik ez, tokiko emakume taldeen erresistentzia-dinamikak ere izan ditu aztergai.